

Lau milioi lan baino gehiago ditu dagoeneko Europeana Liburutegi Birtualak

2008ko azaroan ireki zen www.europeana.eu web gunea eta, urte bete igaro ez bada ere, bikoiztu egin du dokumentuen zenbatekoa. Frantziatik heldu dira lanen ia erdia eta Espainiaren ekarpena %0,6koa izan da. Lau milioi lan baino gehiago ditu Europeanak. Irudia: www.europeana.eu

Europeana Liburutegi Birtualak 4,6 milioi dokumentu digital jarri ditu dagoeneko internauten eskura. Ekimenak bikoiztu egin du 2008ko azaroan ireki zenean zeuzkan lanen zenbatekoa. Europako Batzordea oso baikor agertu da lan kantitatearen gehikuntzarekin baina estatu kide ezberdinek egiten dituzten ekarpenen arteko desoreka azpimarratu du. Zentsu honetan, Batzordeak nabarmendu du Europeanako lan digitaletatik ia erdia estatu bakar batetik datorrela: Frantziatik. Beste estatu kideak 'beren baliabideen neurrietatik behera ari dira lanean'. Alemania da ekarpen gehien egiten duen bigarren estatua (%15,4) eta jarraian Holanda (%8), Erresuma Batua (%7,9), Suedia (%5,2), Finlandia (%4), Grezia (%1,6), Italia (%1,2) eta Belgika (%1,1). Batzbesteko txikiena duten estauen artean Espainia ageri da, %0,6ko ekarpenarekin. Kataluniako Liburutegiko 70 inkunabile bilduma gehitu berri da Europeana Liburutegi Birtualera. Europar Batasunean digitalizatu diren liburu guztien %5 bakarrik daude 'Europako Museo Birtualean' eskura. Europako Batzordeak adierazi duenez, 'arazo txiki batzuk daude egile eskubideekin, eta zentsu honetan 'sakabanatuegi dagoen' zuzenbide esparrua aldatu beharra azpimarratu du. Europako Batasunaren aurreikuspenen arabera, 2010erako 10 milioi dokumentu izatera heldu daiteke Europeana.